

**EUSKAL AUTONOMIA  
ERKIDEGOKO  
HEZKUNTZA  
LEGE PROIEKTUA**

**ZUZENKETA-PROPOSAMENAK**

**’K** EUSKALGINTZAREN  
KONTSEILUA

**2023ko ekaina**

## ATARIKOA

Eusko Legebiltzarrak 2021eko urriaren 14an egindako osoko bilkuran egun indarrean dagoen Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea aldatzeko prozedura abiatu zuen. Hurrengo hamarkadetako hezkuntza-sistemaren oinarriak ezarriko dituen legearen eztabaidari zein onarpenari ekin zitzaion egun horretan.

Horren baitan, Euskalgintzaren Kontseiluak 2021eko abenduaren 21ean Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordean parte hartu zuen, eta bertan bi ekarpen nagusi egin zituen. Batetik, hezkuntza-komunitateko eragile nagusienekin 2008an aurkeztutako *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* proposamenaren gakoak aurkeztu zituen, eta bestetik, abenduaren 16an Euskalgintzaren KONTSEILUarekin batera, EHko Ikastolak, EHIGE, Kristau Eskola, Hik Hasi, HEIZE, ELA, LAB eta STEILAS eragileek Gasteizen aurkeztutako *Euskaraz Hezi, Berdintasunean Hazi* aldarriaren gako eta neurriak ere partekatu zituen.

2022ko otsailaren 8an Eusko Legebiltzarreko Hezkuntza Batzordeko batzordeburuaren txosten-proposamena helarazi zitzaigun: *Euskal hezkuntzaren eraldaketarako oinarrien txostenaren zirriborroa*. Ondoren, aurreikusitako epeetan, Euskalgintzaren Kontseiluak ekarpenak egin zizkion zirriborroari.

Apirilaren 7an, Eusko Legebiltzarreko lau alderdi nagusien babesarekin onartu zen *Etorkizuneko euskal hezkuntza-sistemari buruzko hitzarmenaren oinarriak zehazteko ponentzia*.

Ondoren, ponentzia hori oinarri, Eusko Jaurlaritzak *Hezkuntza Lege Aurreproiektuaren Zirriborroa* aurkeztu zuen irailaren 14a. Horren aurrean, Euskalgintzaren Kontseiluak zenbait kezka plazaratu zuen. Nagusiki, positiboki baloratu zuen Legeak berariaz jasotzea zein diren ikasleek eskuratu beharreko hizkuntza-gaitasunak derrigorrezko hezkuntza amaitzerako. Halere, kezka legea horretara mugatzeak eragin zuen. Alegia, horra iristeko euskal hezkuntza-sistemak ez du zehazten zein hizkuntza-ereduri jarraituko dion.

Horrexegatik, eta gainerako gabezia batzuei konponbidea emateko, eta nola ez, hizkuntzaren korapiloa askatzeko, adostasun sozial sendoa jorratu zuen. Horren emaitza urriaren 10ean irudikatu zuen Gasteizen, gehiengo sindikalarekin eta hezkuntza eragile nagusiekin batera: EAEko Hezkuntza Legeari egindako osoko ekarpena. Hau da, legeak euskararen inguruan jaso beharreko artikuluen proposamen integrala. Horrela, proposamena bere horretan ekarpen gisa jasotzeko eskaera egin zion Kontseiluak Eusko Jaurlaritzari.

2023ko apirilaren 25ean, Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Batzordeak EAEko *Hezkuntza Lege proiektua* Eusko Legebiltzarrerera helaraztea onartu zuen. Hartara, berriz ere aukera izango da ekarpen zehatzak egiteko. Euskalgintzaren Kontseiluak balorazio gazi-goza egin zuen proposamenari dagokionez, eta argi adierazi zuen legeak euskara gehiago behar duela, baldin eta ikasle guztien eskubideak bermatzeko ezagutzaren unibertsalizazioa lortuko bada. Hartara, honako dokumentu honen bidez, Euskalgintzaren Kontseiluak

Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 Andoain (Gipuzkoa). Tel.: (+34) 943 59 12 00 Faxa: (+34) 943 59 30 51 e-posta: [kontseilua@kontseilua.eus](mailto:kontseilua@kontseilua.eus)



legeari ekarpen eta zuzenketa zehatzak egin nahi dizkio, prozesuaren hasieratik izan duen jarrera eraikitzaileari segida emanez.

## AURKEZTUTAKO ZUZENKETAK

Legeari zuzendutako ekarpenak egiteko 2022ko urrian hainbat eragilerekin adostutako lege-proposamena izan dugu oinarri. Kontuan hartu behar da proposamen hori dela egun euskararen inguruan izan den adostasun sozialik handiena eta zehatzena. Hartara, bertan jasotako neurri guztiak Eusko Jaurlaritzak aurkeztu duen proposamenean txertatzen saiatu gara.

Bestalde, Kontseiluak *Ikasle Euskaldun Eleanitzak Sortzen* proposamena ardatz hartuta, beste zenbait ekarpen aurkeztu nahi izan dizkio proposamenari, bereziki, kezka sortu diguten elementu batzuei dagokienez, besteak beste ikasleen ebaluazioa. Horrekin batera, 2022ko apirilean Eusko Legebiltzarrak onartu zuen ponentzian positiboki baloratutako elementuak eta Legean deklinazioa izan ez dutenak ere berreskuratu ditugu. Finean, ulergaitza egiten zaigu alderdien adostasuna izandako elementuak jaso ez izana.

Hortaz, Euskalgintzaren Kontseiluaren izenean sartuko diren ekarpenak izan arren, kontziente gara ekarpenok gehiengo sindikalarekin eta hezkuntzako eragile nagusiekin jorrotutako elkarlanaren eta adostasunaren ondorio direla, eta horrexegatik, balio eta aitortza hori eman dakizkiela eskatzen dugu.

# ZUZENKETAK

## ZIOEN AZALPENA

### II. Lege baten zergatia

#### I. EKARPENA

8. orrialdea

#### Lehen paragrafoaren ostean erantsi

Egoera gutxituan dagoen hizkuntza baten berreskurapen-prozesuan hezkuntzak nahitaezko funtzioa betetzen du, hain zuzen ere, hiztun berriak modu naturalean lortzeko. Hezkuntza-sistemak ekarpen ikaragarria egin dio azken hamarkadotan berreskurapen-prozesuari. Hartara, hezkuntza da ardatz nagusia egoera gutxituan dagoen edozein hizkuntzaren berreskurapenerako, belaunaldi berriek gaitasun egokia lor dezaten berma dezakeelako eta gizarte-kohesiorako giltzarria ere badelako.

Azken hamarkadotan hezkuntza-sistemak egin duen ekarpenari aitortza egin behar zaio: milaka eta milaka herritar euskaldundu dira. Halere, oraindik ezagutzaren unibertsalizaziotik urrun gaude. Badakigu zein den eredurik arrakastatsuen eta zein den desegokiena, baina sistema bera berrikusi behar da. Izan ere, gogora dezagun, Euskararen Legean jasotzen den bezala, administrazioak gaitasun hori bermatzeko betebeharra du.

### III. Hezkuntza-sistemaren balioak

#### 2. EKARPENA

10. orrialdea

#### Hirugarren paragrafoaren ostean erantsi

Izan ere, legeak, gainera, zuzenean eragiten die gizarte kohesioari eta belaunaldi berrien aukera-berdintasunari. Gizarte-bizitzan zein garapen profesionalean aurrera egiteko oinarritzkoa baita hizkuntza-gaitasun egokia eskuratzea, euskaraz eroso aritzeko gaitasuna eskuratzea. Horregatik, lege honek tresnak jarriko ditu ikasleek euskaraz gaitasun egokiak lor ditzaten, hori bermatzea ezinbestekoa da gizarte kohesioan eta berdintasunean aurrera egiteko.

Berdintasun-printzipioari jarraiki, jatorriak, egoera sozioekonomikoak, egoera soziolinguistikoak edota bestelako irizpideek ezin dituzte baldintzatu ikasleek eskuratu beharreko gaitasunak -ez hizkuntzaren arloan, ez eta beste ezagutza-arloetan ere-. Aitzitik, herritarren arteko bereizkeria handia litzateke jatorria, eremu soziolinguistikoa, egoera soziala edo bestelako irizpideren bat baliatzea ikasleei euskara-gaitasun egokia eskuratzea ukatzeko.

Beste gai edo esparruetan bezala, kasu honetan ere, berdintasuna bermatzeko oinarritzko bidea izan behar du gutxien duenari gehiago ematea. Horregatik belaunaldi berri guztiei euskararen ezagutza egokia bermatzeko dien hizkuntza-eredu orokortua ezartzen du legeak, aukerarik justuena eta berdinzaleena delako.

## IV. Hezkuntza eleaniztuna eta kulturartekoa

### 3. EKARPENA

II. orrialdea

Atalaren izena aldatu

**IV. Hezkuntza euskaldun eleaniztuna eta kulturartekoa**

### 4. EKARPENA

II. orrialdea

Lehen paragrafoaren ostean erantsi

Hori horrela izanik ere, kontziente izan behar dugu hizkuntzen artean harreman-erlazioak ere badirela, eta harreman horiek are ageriago geratzen direla gurea bezalako lurralde batean non derrigorrez ezagutu beharreko hezkuntza hegemoniko bat eta berezko hizkuntza gutxitu bat dauden. Horrek, noski, berezko hizkuntza gutxituaren aldeko neurri proaktiboak hartzea dakar. Ondorioz, egoera soziolinguistikoa zein sozioekonomikoa dela, edota gizarte-bizitzaren eremu askotan gaztelania nagusi dela, legeak arreta berezia jarri behar dio euskararen ohiko erabilera funtzionalaren esposizio nahikoa bermatzeari, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuak finkatzen duen bi hizkuntza ofizialak ezagutzeko eskubidea bermatzen laguntzeko.

### 5. EKARPENA

II. orrialdea

Bigarren paragrafoaren ostean erantsi

Horretarako, legeak hezkuntza-sistemaren hizkuntza-eredu zehatza proposatzen du, konjuntzio-sisteman oinarritua. Sistema horrek berezko hizkuntzaren eta beste hizkuntza ofizialaren ezagutza bermatzen du, bai eta atzerriko hizkuntza batean gaitasunak eskuratzea ere, eta berezko hizkuntza irakaskuntzan ardatza izatea sendotzen du. Halaber, orain arte lortutako emaitzek justifikatzen dute hizkuntza-eredu hori ezartzea.

## V. Legearen edukia

Atal hau moldatu beharko da legearen IV. Tituluan egiten diren aldaketen arabera.

## ATARIKO TITULUA

### Definizioak

#### 6. EKARPENA

##### K atal berria sortu

18. orrialdea

**Ikastetxearen hizkuntza-proiektua:** Euskara ardatz duen eredu aoinarri eta ikasleek legeak ezarritako hizkuntza-gaitasuna lortzeari begira, hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko derrigorrez prestatu eta baliozkotu beharreko proiektua, non ikasleen hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta hizkuntzekiko jarrera positiboa planifikatu beharko diren.

## I. TITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

### I. KAPITULUA: Legearen xedea eta Euskal Hezkuntza Sistema

#### 1. artikulua.– Legearen xedea.

#### 7. EKARPENA

##### Bigarren paragrafoa moldatu

19. orrialdea

2.– Euskal Hezkuntza Sistemaren mailakako eraldaketaren oinarriak ekitatea eta bikaintasuna dira, eta balio hauek bultzatzen ditu: inklusioa eta gizarte-kohezioa; ebaluazioaren kultura, bere irismenik zabalenean, eta euskara eta euskal kultura ardatz hartzen dituen **eredu orokortu eta inklusibo sistema eleaniztun eta kulturartekoa**, baita bi hizkuntza ofizialak menderatzea eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ondo ezagutzea ere.

### II. KAPITULUA: Euskal Hezkuntza Sistemaren xede, printzipio eta balioak

#### 3. artikulua.– Euskal Hezkuntza Sistemaren helburuak.

#### 8. EKARPENA

##### W atala moldatu

22. orrialdea

Ikasle guztiak bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gaitasuna lortu dezaten **bermatzea sustatzea**, benetako egoerara egokituta. Neurriak hartuko dira euskararen erabilera bultzatzeko, eskola-komunitatearen motibazioa sustatzeko eta ikasleen arteko harremanetan euskararen erabilera indartzeko.

**9. EKARPENA**
**22. orrialdea**
**X atala erantsi**

Euskal Herriko kultura-nortasuna jorratzen laguntzea, inguruneko geografian, gizarte-ekonomian eta kulturaren errotzea bultzatuz. Euskal Herriko kide gisa duten nortasun kulturala eraikitzen laguntzea, beren historia eta kultura propioak ezagutuz, eta ikasleak beren ingurune geografiko, sozioekonomiko eta kulturalean sustraitzea sustatuz.

**IV. KAPITULUA: Ikasketen antolamendua**
**Lehen atala: Ikasketen antolamendua eta curriculum akademikoa**
**10. artikulua.– Curriculum eta oinarriko konpetentziak.**
**10. EKARPENA**
**25. orrialdea**
**10. artikulua berria erantsi, eta gainerako artikuluen zenbakia aldatu**
**10. Euskal Curriculum ardatz**

1. Curriculumaz ari garelarik, Euskal Curriculumaz ari gaita ulertuko da, euskal dimentsioa eta dimentsio unibertsala barne biltzen dituen ikuspegia jasotzen duen Curriculum, hain zuzen. Ikuspegi honi erantzunez zehaztuko dira ikaslearen irteera profila, metodologia eta ebaluazio-ildoak eta lorpen adierazleak. Horretarako, hiru arlotan berriazko lanketa bideratuko da:

- Irakasleak curriculumaren ulerkera honetaz jabetzeko eta berau garatzeko prestatzea. Horretarako:
  - Goi-mailako ikasketen eta gradu mailako ikasketen curriculumak eguneratuko dira.
  - Etengabeko prestakuntza-programak indartuko dira.
- Curriculumaren ulerkera honi erantzuten dioten ikasmaterialak eta ikas-baliabideak garatzea eta berauen erabilera arautzea.
- Etengabeko ikerketa, ebaluazioa eta berrikuntza bermatuko duen zerbitzua artikulatzea, unean uneko gizarte aldaketei, premiei eta erronkei erantzun eraginkorrek emateko.

2. Euskal Curriculumaren berezitasunak hiru helburu erantsiko ditu:

- a) Euskara ikastea eta euskararen erabilera sustatzea, komunikaziorako ez ezik, Euskal Herriko nortasun kultural eta historikoa interpretatzeko eta transmititzeko ere, gizarte-kohesiorako ezinbesteko elementua den heinean.
- b) Europako, eta, oro har, munduko, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna errespetatzeko eta aitortzeko prestakuntza, bai eta eleaniztasun horren izaera aberasgarria ere, kultura desberdinen arteko harremanak ezartzeko oinarri gisa.
- c) Euskal Kulturaren Transmisioa belaunaldiz belaunaldi bideratuko dela ziurtatzeko, euskal kulturaren ezagutza bultzatuko da ikuspegi kritikoa batetik.

## Bigarren atala: Araubide orokorreko ikasketak

### 10. artikulua. Haur Hezkuntza

<b>11. EKARPENA</b>	<b>25. orrialdea</b>
<b>Bigarren atala kendu</b>	
2. Haur Hezkuntzak baldintza egokiak bultzatu eta eskaini behar ditu Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntzetan elebitasun orokorra bermatzeko, eta, gainera, hezkuntza-ekintzak egingo ditu atzerriko hizkuntza batean.	

## Hirugarren atala: Araubide bereziko ikasketak

### Bigarren azpiatala: Arte ikasketak

#### 17. artikulua.– Arte-ikasketak arautzea

<b>12. EKARPENA</b>	<b>28. orrialdea</b>
<b>Laugarren atala erantsi</b>	
Ikasleei arte-ikasketaren barruan dauden ikasketa guztiak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaie.	

### Hirugarren azpiatala: Kirol-ikasketak

#### 18. artikulua.– Kirol-ikasketak arautzea

<b>13. EKARPENA</b>	<b>28. orrialdea</b>
<b>Bosgarren atala erantsi</b>	
Ikasleei kirol-ikasketen barruan dauden ikasketa guztiak euskaraz egiteko eskubidea bermatuko zaie.	

<b>14. EKARPENA</b>	<b>28. orrialdea</b>
<b>Seigarren atala erantsi</b>	
Goi-mailako teknikariaren titulua lortzeko, ikasleek CI hizkuntza-gaitasuna egiaztatuko dute, eta, horretarako, ikasketen curriculumak gaitasun hori eskuratzeko tresnak eta baliabideak jarriko ditu	



## II. TITULUA.– HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA ETA ELKARBIZITZA POSITIBOA

### I. KAPITULUA: Hezkuntzarako eskubidea

<b>15. EKARPENA</b>	<b>30. orrialdea</b>
<b>Hogeita bosgarren artikulua berria sortu, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu</b>	
<b>25. artikulua. Euskara ezagutzeko eskubidea</b> a) Hezkuntza-sistemak bermatu beharko die ikasleei hizkuntza ofizialen ezagutza egokia, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (HEEMB) B2 maila, gutxienez, eskuratzea, ikaslearen eta ingurunearen errealitate linguistikoa edota soziolinguistikoa zeinahi izanik. b) Gaitasun horiek eskuratzeko xedez, euskararen ikaskuntzari ordu nahikoak esleitu beharko zaizkio. Erregelamenduz ezarriko da euskararen irakaskuntzari ordu nahikoak ezarri ote zaizkion aztertzeko aldi aldiko prozedura, eta ezarritako gaitasuna lortze aldera ordu kopurua nahikoa ez den kasuetarako, ikastegiaren hizkuntza-proiektua aldatzeko prozedura eta hertsatzeko bitartekoak.	

## III. TITULUA: HEZKUNTZA-SISTEMAREN GOBERNANTZA

### II. KAPITULUA: Ikastetxeen gobernu eta zuzendaritza profesionala. Ikastetxeetako zuzendaritzen lidergo pedagogikoa

#### I. atala: Ikastetxe publikoen gobernu

#### 39. artikulua.– Zuzendaritza-taldea.

<b>16. EKARPENA</b>	<b>41-42. orrialdeak</b>
<b>Bigarren eta hirugarren atalak moldatu</b>	
2.- Zuzendaritza-taldea da zuzendariaren koordinaziopean eta gidaritzapean funtzio hauek betetzen dituen organoa: zuzendaritzak eskuordetzan ematen dizkion edo ikastetxearen antolakuntza- eta funtzionamendu-araudian berariaz aitortzen zaizkion ikastetxeko gobernu-eginkizun exekutiboak betetzen ditu. Halaber, hezkuntza- eta pedagogia-eredua definitzen eta aplikatzen laguntzen du; ikastetxearen plangintza estrategikoa eta operatiboa bultzatzen du, <b>hizkuntza-proiektuaren jarraipena egiten du</b> eta, beharrezkoa bada, parte hartzeko gainerako kide anitzeko organoen aurrean erantzuten du eta kontuak ematen ditu. 3.- Zuzendaritza-taldea honako hauek osatuko dute, gutxienez: zuzendariak, ikasketaburuak (ikasketen eta plangintzaren arduradun gisa), <b>hizkuntza-normalizaziorako arduradunak</b> eta idazkariak.	

#### 44. artikulua.– Ikastetxeko eskola-kontseilua

<b>17. EKARPENA</b>	<b>45. orrialdea</b>
<b>Bigarren atalean eskumena erantsi</b>	
k) Hizkuntza-proiektuen jarraipena egitea eta neurri zuzentzaileak onartzea.	

### 2. atala: Itunpeko ikastetxeen gobernua

#### 48. artikulua.– Itunpeko ikastetxeetako eskola-kontseilua

<b>18. EKARPENA</b>	<b>47. orrialdea</b>
<b>Bigarren atalean eginkizuna erantsi</b>	
m) Hizkuntza-proiektuen jarraipena egitea eta neurri zuzentzaileak onartzea.	

## III. KAPITULUA: Eskola-kontseiluak eta Euskal Hezkuntza Sistemaren parte hartzea

### I. atala: Irakaskuntzaren programazioan parte hartzea

#### 53. artikulua.– Irakaskuntzaren programazio orokorraren eremuak.

<b>19. EKARPENA</b>	<b>49. orrialdea</b>
<b>Eremua erantsi</b>	
l) Hizkuntza-proiektuaren ardatz nagusiak.	

### 4. atala: Udal hezkuntza-kontseiluak

#### 59. artikulua.– Udal hezkuntza-kontseiluak

<b>20. EKARPENA</b>	<b>49. orrialdea</b>
<b>Atala erantsi</b>	
5. Toki-administrazioek zuzenean edo zeharka antolatzen dituzten jardueretan, 16 urtez beheragoko gazteei zuzenduta badaude, euskara erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izan dadin jarraipena egingo du.	

## IV. TITULUA: HIZKUNTZAK EUSKAL HEZKUNTZAN

### I. KAPITULUA: Euskal Hezkuntza Sistemaren esparru eleaniztuna eta kulturartekoa

#### 21. EKARPENA

49. orrialdea

#### KAPITULUAREN IZENA ALDATU

**I. KAPITULUA: Euskal Hezkuntza Sistema: euskaldun eleaniztuna eta kulturartekoa**

#### 65. artikulua.– Esparru eleaniztunaren ezaugarriak

#### 22. EKARPENA

54-55. orrialdea

#### Artikulua aldatu, bai eta izenburua ere

#### 65. artikulua: Euskal Hezkuntza Sistema euskaldun eleaniztunaren ezaugarriak

1.– Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztuna da, euskararen inguruan artikulatua, eta bi hizkuntza ofizial eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ditu hezurduratat.

2.– Euskararen inguruan artikulatuta egoteak dakar berezko hizkuntza hezkuntza sisteman irakas- eta ikas-hizkuntza normalizatua izatea, bai eta jardueretan erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izatea ere.

3.– EAEko hezkuntza sistemaren hizkuntza-ereduak konjuntzio-sistemari jarraituko dio; hau da, hizkuntza-eredu orokor eta inklusiboa izango da eta ez ditu ikasleak banatuko hizkuntza ofizialen arteko aukeraketaren arabera.

2.– Legeak hezkuntza euskaldun eleaniztunaren eta kulturartekoaren alde egiten du, hizkuntza- eta kultura-kontzientzia zabala eta komunikazio-kompetentzia etengabe hobetzeko motibazioa sustatzeko. Era berean, derrigorrezko hezkuntza amaitzean, ikasle guztiak, familia-jatorria edozein dela ere, Euskadiko bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ezagutzea ahalbidetzearen alde egiten du.

3.– Euskal Hezkuntza Sistema eleaniztuna izateak berekin dakar irakasleen eta ikasleen inplikazioa, hiru hizkuntzatan gutxienez komunikazio eraginkorrera bideratutako gaitasunak garatzeko, multimodalitateetik abiatuta.

4.– Ikastetxeek lekua egingo diete atzerriko jatorria duten ikasleen hizkuntza eta kulturei, elkarrekiko aitortza bultzatuko dute, aniztasunaren balio kulturala eta ekonomikoa nabarmenduko dute eta hezkuntza-inklusioa sustatuko dute.

5.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak euskararen erabilera indartuko du berariazko lanen bidez, eskola-ekintzan hizkuntza horren ohiko erabilera normalizatzeko xedez.

## 66. artikulua.– Hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntzak

### 23. EKARPENA

54-55. orrialdea

#### Artikulua aldatu

1. Curriculum-dekretuek hizkuntza horien ezagutza praktiko eta nahikoa definitu beharko dute, baita hizkuntza horien irakaskuntza eraginkorra ere. Gutxieneko helburu gisa, konpetentzia-maila hauek finkatuko dituzte:
  - Lehen Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 maila lortu beharko da bi hizkuntza ofizialetan.
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B2 maila lortu beharko da bi hizkuntza ofizialetan.

**~~Ikasleen ardura beren gain duten irakasle-taldeek ebaluatuko dute gutxieneko helburu horiek betetzen diren.~~**
- 2.– Gutxienez atzerriko hizkuntza baten irakaskuntza jaso behar da curriculumetan, ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren amaieran behar besteko ezagutza lor dezaten eta egoera, testuinguru eta eremu pertsonal, sozial eta akademikoetan komunikazio egokia lortzen dela ziurta dadin. Horretarako, emaitzetan oinarritutako plan bat diseinatu ahal izateko gaikuntza-mailak finkatuko dira, helburu hauek lortu ahal izateko, betiere horrek ez badu oinarritzko legedia urratzen:
  - Lehen Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko A2 azpimaila lortu beharko da.
  - Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza amaitzean, Europako Erreferentzia Marko Bateratuko B1 azpimaila lortu beharko da.

**~~Ikasleen ardura beren gain duten irakasle-taldeek ebaluatuko dute gutxieneko helburu horiek betetzen diren.~~**
- 3.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak eta ikastetxeek beharrezko neurriak ezarriko dituzte finkatutako mailak lortzen direla bermatzeko, ingurune bakoitzeko abiapuntua eta ezaugarri soziolinguistikoak eta sozioekonomikoak kontuan hartuta. Hizkuntza ofizialei eta atzerriko hizkuntzei buruzko gutxieneko helburu horiek Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxe guztietan aplikatuko dira.
- 4.– Araubide bereziko ikasketen curriculumek bermatu behar dute ikasleek kasuan kasuko irakaskuntzaren berezko hizkuntza-kompetentzia teknikoa eskuratzen dutela.
- 5.– Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak beharrezkoak diren ebaluazio-tresnak arautuko ditu helburuak lortzeko, irakasle-taldeek bere baloratu ditzaten lortu diren emaitzak, halako moduan non ikasle guztiak lege honetan xedatutako hizkuntzen ezagutza-maila eskuratzen dutela. Horrekin batera, **jarraipen-sistema eraginkor bat abian jarriko du ebaluazioaren emaitzak hobetzeko.**
- 6.- **Ikastetxeek ebaluazio-prozesu zehatza plangintzatu beharko dute, eta horietako zenbait kanpo-ebaluazioak izango dira, araudiak ezarritakoari jarraiki.**
- 7.- **Ikastetxeek eskumena duen sailak ezarritako ebaluazio-prozedurari erantzun, eta beharrezko neurri zuzentzaileak ezarriko dituzte.**

## II. KAPITULUA: Hizkuntza-proiektuak Euskal Hezkuntza Sistemari

### 67. artikulua.– Hizkuntza-proiektuak hezkuntza-sisteman

<b>24. EKARPENA</b>	<b>55-56. orrialdea</b>
<b>Artikulua aldatu</b>	
<p>1. Euskal Hezkuntza Sistema osatzen duten ikastetxeek, hezkuntza-proiektuaren osagai gisa, hizkuntza-proiektu propio bat egin behar dute, hizkuntzak ikastetxean nola tratatu behar diren zehazteko, helburua hartuta euskara ardatz nagusi izango duen sistema eleaniztuna, <del>zeinean bi hizkuntza ofizialak eta atzerriko hizkuntza bat, gutxienez, ikaskuntza-hizkuntzat hartuko baitira.</del></p> <p>2.- Ikastetxearen hizkuntza-proiektuak legeak ezarritako hizkuntza-ereduaren printzipioak aplikatu beharko ditu, eta honako elementu hauek jaso beharko ditu, besteak beste:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>a) Euskara ikas- eta irakas-hizkuntza gisa hartzea.</li> <li>b) Euskararen ikaskuntza-prozesuan, modu orokorrean zein banaka, ikastetxearen errealitate soziolinguistikora egokitzeko irizpide orokorrak. Euskara gutxiago duenari gehiago ematea izango da oinarria.</li> <li>c) Curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztea, bai eta eskolaz kanpoko jardueren proposamenak ere, euskararen erabilera ziurtatzeko.</li> </ul> <p>3.– Ikastetxeko hizkuntza-proiektuak ikasleen hizkuntzen ikaskuntza, erabilera eta hizkuntzekiko jarrera positiboa planifikatu behar ditu, kontuan hartuta abiapuntua eta ingurune bakoitzaren ezaugarri soziolinguistiko eta sozioekonomikoak, horrela ikasleek hezkuntza-etapa bakoitzaren amaieran eskatutako hizkuntza-maila eta beharrezko kompetentziak eskura ditzaten, lege honen 66. artikuluan ezarritako baldintzetan.</p> <p>4.– Ikastetxeko hizkuntza-proiektuak ikaskuntza-prozesuan hizkuntzak irakasteko eta erabiltzeko irizpideak garatu behar ditu.</p> <p>5.– Hezkuntza-administrazioak, tokian tokiko ikastetxearekin lankidetzan, ikastetxearen hizkuntza-proiektuaren jarraipena eta ebaluazioa egingo ditu, hobekuntza-prozesuak gauzatzeko.</p> <p>6.– Euskararen irakaskuntzari dagokionez, hizkuntza-proiektuak curriculumaren eta ikastetxearen helburuak zehaztuko ditu. Gainera, euskararen ingurune-erabilera ziurtatzera bideratutako eskolaz kanpoko jardueren proposamenak jaso behar ditu..</p>	

### Bi artikulua berri erantsi, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu.

<b>25. EKARPENA</b>	<b>56. orrialdea</b>
<b>68. artikulua berria sortu, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu</b>	
<p><b>68. artikulua. Hizkuntza-proiektuen baliozkotzea eta ebaluazioa.</b></p> <p>1. Hezkuntzaren arloko eskumena duen sailak hizkuntza-proiektuak indarrean dagoen araudiarekin bat datorren aztertu eta baliozkotzeko eta, hala ez bada, aldatzeko eskatuko du.</p> <p>2. Hizkuntza-proiektuak bost urtetik bost urtera ebaluatuko dira ikasleen hizkuntza-errendimendua neurtuz eta, hala badagokio, egokitu egingo da, hizkuntza-helburuak eskuratzea bermatzeko.</p>	

**26. EKARPENA**
**56. orrialdea**
**69. artikulua berria sortu, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu**
**69. artikulua. Egokitzapenak hizkuntza-proiektuan.**

Hizkuntza-proiektuak legeak bildutako irizpideak jaso ezean, edota hizkuntza-errendimenduari buruzko ebaluazioarekin gaitasunak bermatzeko egokia ez dela ondorioztatzen bada, hizkuntza-proiektua aldatzeko beharra izango da, ikastetxearen ekimenez edo hezkuntza-administrazioaren kabuz. Hizkuntza-proiektua egokitu ezean, ez da programa-kontratua sinatzerik izango.

**III. KAPITULUA: Irakasleak eta irakasle ez diren langileak**
**70. artikulua.– Irakasleen hizkuntza-gaikuntza hobetzeko prestakuntza**
**27. EKARPENA**
**56. orrialdea**
**Artikulua aldatu**

- 1.– Hezkuntza-administrazioak irakasleak prestatzeko eta hobetzeko plan bat egingo du, curriculumeko hizkuntzetan duten hizkuntza-kompetentzia hobetzeko.
- 2.– Irakasleei euskararen derrigorrezko ezagutza ezarriko zaie, erabiltzaile gaitua, CI maila, gutxienez, irakaskuntzan jarduteko.
- 3.– Irakasleek euskarako C2 maila eta ingeles-irakasleek ingeleseko CI maila lortzeko prestakuntza sustatuko da.
- 3.– Prestakuntza-planak curriculum-hizkuntzen ezagutza ziurtatuko du, eta euskararekiko eta haren erabilerarekiko konpromisoa sustatuko du.
- 4.– Irakasleak euskara-kompetentzietan eta atzerriko hizkuntza batean —ahal dela, ingelesa— prestatzeak kalitatezko irakaskuntzaren beharrei erantzungo die.

**28. EKARPENA**
**57. orrialdea**
**71. artikulua berria sortu, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu**
**71. artikulua. Irakasleen prestakuntza euskal kulturaren.**

Irakasleen prestakuntzaren ardatzetako bat izango da euskal kulturaren ezagutza zabala eta eguneratua izatea, horrela soilik lor daitekeelako irakasle horien erreferenteak euskal kulturaren eremukoak izatea eta ikaslegoari ezagutza eta zaletasun hori transmititzeko baldintzak ziurtatzea.

**72. artikulua.– Irakasle ez diren langileen prestakuntza**
**29. EKARPENA**
**57. orrialdea**
**Artikulua berriatzi**

1. Irakasleak ez diren langileei ere euskararen derrigorrezko ezagutza ezarriko zaie, haien funtzioaren arabera.
2. Euskara-gaitasuna ez duten langileei prestakuntza emango zaie, beren zereginak euskaraz egin ditzaten, kontuan hartuta ikastetxeko langile guztiak direla bertako hizkuntza-ekosistemaren parte.

## IV. KAPITULUA: Euskararen ingurune-erabilera

### 73. artikulua.– Euskararen ingurune-erabilera eta gizartearen erantzukizun partekatua

<b>30. EKARPENA</b>	<b>57. orrialdea</b>
<b>I. atala moldatzea</b>	
<p>a) Euskararen erabilera sustatzea. Funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeetan: euskara izan behar da, jeneralean, ikastetxean bertan garatzen diren jardueretarako eta kanpo proiektuak jardueretako adierazpidea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Ikastetxeetan euskararen erabilera lehenetsiko da barne eta kanpo jardueraharremanetan eta profesionalen arteko harremanetan, bai eta ikasleen eta irakasleen arteko harreman formal eta ez-formaletan ere.</li> <li>• Euskara izango da hezkuntza-administrazioak ohiko hizkuntza.</li> <li>• Ikastetxeak kontratatutako zerbitzu-emaitza ere euskararen erabilera normalizatua bermatuko dute.</li> <li>• Euskara erreferentzia-hizkuntza gisa indartuko da, bai eta ikasleen erabilera aktiboa sustatu ere.</li> <li>• Euskara izango da ikastetxeetatik kanpo begirako jardueretan adierazpide-hizkuntza.</li> </ul> <p>b) Euskararen irakaskuntzari eta erabilerari dagokienez, gizarte-kohesioa eta hezkuntza-jarraitutasuna lortzea. Funts publikoen bitartez finantzatutako ikastetxeek inguruko erakunde eta entitateekin koordinatu behar dituzte beren jarduketan</p> <p>2.– Familiak seme-alaben garapen eleaniztunaren eginkizun guztietan inplikatu dira, eta eginkizun horiek ikastetxearen hizkuntza-proiektuan jasoko dira.</p> <p>3.– Hezkuntza-komunitateko eragilean, eskolaz kanpoko jardueren eta aisialdiaren arteko lankidetzak bultzatuko dira.</p> <p>4.– Euskararekiko, eleaniztasunarekiko eta hizkuntzen arteko elkarbizitzarekiko jarrera positiboak sustatuko dira.</p> <p><del>5.– Eusko Jaurlaritzak, halaber, elkarlanean jardungo du ikastetxeekin, kulturaren eta hizkuntzaren proiektuaren esparru zabalagoan, eta, bereziki Euskadirekin lotura historiko, linguistiko eta kulturalak dituzten lurraldeetan.</del></p>	

<b>31. EKARPENA</b>	<b>57. orrialdea</b>
<b>74. artikulua berria sortu, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu</b>	
<p><b>74. artikulua. Ikastetxeetatik kanpoko eskaintzaz.</b></p> <p>Toki-administrazioek zuzenean edo zeharka antolatzen dituzten jardueretan, 16 urtez beheragoko gazteei zuzenduta badaude, euskara erabilera normal eta orokorreko hizkuntza izango da.</p>	

<b>32. EKARPENA</b>	<b>57. orrialdea</b>
<b>75. artikulua berria sortu, eta ondorengo artikuluen zenbakiak aldatu</b>	
<p><b>75. artikulua. Euskararen herriko beste lurraldeekiko lankidetzaz.</b></p> <p>1. Eusko Jaurlaritzak lotura historiko, linguistiko eta kulturala duten euskararen gainerako lurraldeetako ikastetxeak sustatu eta lagundu behar ditu.</p> <p>2. Euskararen gainerako lurraldeetako instituzioekin lankidetzak hitzarmenak garatuko ditu.</p>	

3. Aurreko artikuluan jasotakoa betetzeko eta ikastetxeak sustatzeko helburuarekin, Jaurlaritzak lankidetzak-akordioak egin ditzake ikastetxe horiek dauden lurralde eta herrialdeetako erakunde eta entitateekin.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

### 34. EKARPENA

#### XEDAPEN INDARGABETZAILEA TXERTATU

**Lehena.** Indargabetuta gelditzen da uztailaren 11ko Euskal Herriko irakaskuntza ez unibertsitarioan hizkuntza ofizialen erabilera arautzeari buruzko 138/1983 Dekretua.

**Bigarrena. Indargabetuta gelditzen da:** Euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko 10/1982 Legearen 16. artikulua

*Andoainen, 2023ko ekainean*